270. zk.
Bigarren aroa
Otsailak 1
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa
Edu Zabalak “Inauteria, gizakia naturaren kontra” liburua argitaratu du.

10. orrialdea

Kirolak
Eliteko igerilariaren betebeharrak, eta haien ondorioak.

9. orrialdea

3 Erreportajea: Ezkutuko lana izaten da inauteriaren aurretik.
4 Argazkiak: Kaldereroak.
5 Argazkiak: Inudeak eta artzainak.
6 Caser Anaka: Zenbait berri.
7 Argazkiak: Hasi da festa Ola Sagardotegian.
8 Kirolak: Elkarrizketa Lea Etxebarrieta errugbi jokalariari.
11. Berria CBAra iritsiko da Abenida zubia.
12 Berria Amatxi denda irekiko dute.
13 Gaztea Gazteartean expo.
14 Gazte infor
15 Agenda

ola
SAGARDOTEGIA
Inaki Bengoetxea

TXOTX BERRIA

Kalitatezko sagardoa, bertako sagarrekin ekoiztua.

Asteburuetan, trikitiarekin.

943 62 31 30

ZATOZ !

Argazki lehiaketa

Juncal Balerdi
Ikust Alai liburutegi zaharra.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 56666

Istillaga plaza

Istillaga plaza Patronatuaren frontoi zaharraren atzean dago. Erromes plazak, Dunboa kanalak, eta Santiago karrikak inguratutzen dute. 1990eko abenduaren 31ko Osoko Bilkuran jarri zioten izena.

Jose Antonio Loidiren eta L.U.K.T.ren proposamena izan zen. "Istil" hitzak buztina edo lokatza esan nahi du, eta "aga" atzizkiak lekua adierazten du.

Berez, Dunboa kanalaren ertzean zegoen kaiaren izena zen Istillaga. Santiago karrikaren amaieran zegoen. Egungo Istillaga plazari, aldiz, "Sakristia-atzia" deitzen zioten.

1883an, Pedro Rekondo arkitektuaren proiektuaren arabera, Santiago karrika konpontzeko obrak onartu zituzten, eta karrikaren amaieran, Istillaga izeneko zonaldean, plaza bat eraikitzen hasi ziren. Istillaga plazaren betelana egiteko eta padura ezabatzeko proiektuaren aurrekontua 5.082,50 pezetakoa izan zen.

Istillaga kaia izan da ia erabat aldatu gabe iraun duena, Dunboa kanalaren gaineko arrapala gisa, 1994ra arte. Orduan, obra handiak eta hondakin eta euri urak biltzeko hodi berriak egin zituzten kanalean. Santiago karrika, eta bidegorriaren hasieran Dunboa kanalaren beste ertza komunikatzen dituen zubi berria eraiki zuten Istillaga izeneko leku hartan.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Ezkutuko lana izaten da inauterien aurretik

Hilabeteak ematen dituzte konpartsek desfileak prestatzen

"Non prestatuko ote dituzte karroza handi horiek?", galdetu izango zion baten batek bere buruari, inauterietako desfilea ikusterakoan. Egia da elkarte gehienek ez dutela halako trasteak gordetzeko tamainako lokalik. Hori dela eta, Irungo Udalak bi pabiloi erabiltzeko aukera ematen die, hilabetez, desfilean parte hartzen duten konpartsei. Soroxarta industriagunekoan topatu ditugu Javier Rivero eta Xabier Berridi, Elatzetako Gurasoen Elkarteko konpartsaren karroza prestatzen.

"Batzuetan zeharo inspiratuta etortzen gara, eta beste batzuetan ez dugu aurrera egiteko modurik topatzen"

Javier Rivero

"Hilabete batean dena egin beharra dago"

Xabier Berridi

Lauzpabost karroza daude guztira pabiloian. Batzuk besteak baino aurreratuagoak, denak prestaketa prozesuan. Rivero eta Berridi Batmobilearekin ari dira buru-belarri. Izan ere, super heroien gaia aukeratu dute aurten. "Ideien bilketa egiten dugu normalean. Ateratzen direnak pixkanaka baztertu egiten ditugu, eman ditzaketen arazoen arabera, egokiena hautatu arte. Dena den, 120 lagun inguru ados jartzea oso zaila da", azaldu du Xabi Berridik. Aurrerapen handiarekin hasten dira inauteriak prestatzen. Udaberrian izaten da gaiaren aukeraketa, maiatzean, apirilean, batzuetan baita martxoan ere. Udaran, koreografiak prestatzen hasten dira dantzen arduradunak. Jostunak, berriz, mozorroen diseinuak egiten. Dantzak entseatzen azaroa aldera hasten dira haurrak. Orduan heltzen da, baita ere, karroza prestatzeko arduradunen txanda.

Gauza txikiak aurreratzen dituzte Berridik eta Riverok. Lanaren zatirik handiena, ordea, azken hilabetean egin behar izaten dute, udalak pabiloia erabiltzeko baimena ematen dienean. "Orain arte piezak zatika muntatzen eta desmuntatzen ibili gara", argitu du Javi Riverok. Azken hilabetean lan karga handia izaten dute, eta estu samar ibiltzen dira. Konpartsa guztien arazo nagusia denbora falta izaten dela baieztatu du Xabi Berridik: "Hilabete batean dena egin beharra dago. Eta astean zehar jendeak lan egiten du. Beraz, asteburuetan besterik ezin izaten dugu gelditu, eta asteburua motz gelditzen da". Hala ere, bi lagun besterik ez dira aritzen karroza muntatzen. Momentu puntualetan bakarren bat joaten da laguntzera. Baina gehiena, bien artean egiten dute. "Jende gehiagok traba besterik ez luke egingo", adierazi du Riverok.

Ahaleginaren emaitzak

Merezi al du urtero presaka ibiltzeak? Baiezko erantzuna eman dute, azkar, Riverok eta Berridik. Alde batetik, denbora gutxi eduki arren, karroza prestatzeko prozesuarekin gozatu egiten dutela baieztatu du Riverok: "Gauza barregarriak gertatzen zaizkigu. Egun batzuetan zeharo inspiratuta etortzen gara, eta beste batzuetan ez dugu aurrera egiteko modurik topatzen. Baina orokorrean, asko disfrutatzen dugu". Denboraren kezkari nolabaiteko xarma ere antzematen diote, bestalde. "Batzuetan pentsatzen dugu ez garela buruan duguna garaiz amaitzeko gai izango. Baina nola edo hala denbora ateratzen dugu, eta helburua betetzea lortzen dugu azkenean", aipatu du Berridik.

Karroza atontzen amaituta, desfileen egunetan disfrutatzera irteten dira. "Niretzat, behintzat, oso-oso dibertigarriak dira. Alaba atera zen lehen urtean ikusle izan nintzen, baina hotza pasa nuen, aspertu nintzen, eta hurrengo urtean barruan joatea erabaki nuen. Pozik nago nire erabakiarekin", onartu du Javi Riverok. Haurren ilusioa ikusteak ere asebetetzen dituela gaineratu du Xabi Berridik: "Dena ematen dute. Larunbatean Irunen ateratzen dira, igande goizean Hondarribian, eta arratsaldean berriro Irunen. Azkenerako, leher eginda egoten dira, zer dantzatzen ari diren ere ez dakitela".

Urteren batean, inauterietako larunbat gauean pabiloian gelditzea egokitu izan zaie, apurtutako piezak edo bestelako matxurak konpontzen. Gehienetan, eguraldiaren ondorioz. "Denetarik izan dugu: euria, kazkabarra, elurra... Behin desfilea bertan behera gelditu zen, haizearen ondorioz", gogoratu du Berridik. Denen kezka izaten da eguraldiarena. Baina otsailean, ezin da udarako girorik espero. "Badakigu loteria hutsa dela", aitortu du Riverok. Hala ere, ziurtatu du euria eginez gero ere kalera irtengo direla. Eguraldiak ezin duela hilabetetako lana zapuztu.

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

KALDERERROAK

T & T Hizkuntzak

Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzat alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
-Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 52 59
academiatyt@gmail.com

INUDEAK ETA ARTZAINAK

2016-17 AURREMATRIKULA

TXINGUDI IKASTOLA

Eman euskara munduari

Izen-ematea: 2013an jaiotako haurrentzat, urtarrilaren 25etik otsailaren 5era

ATE IREKIEN JARDUNALDIAK

otsailaren 3an, 17:00etan (ez dugu haurtzaindegi zerbitzurik)

Ikastolan onartutako haurrentzako bisita eguna, martxoaren 25ean 17:00etan. (Haurtzaindegi zerbitzua izanen dugu)

www.txingudikastola.hezkuntza.net - 943667055 -012338aa@hezkuntza.net

Caser Anaka

Sabinak 100 urte bete ditu, Inauteriak prestatzen ari dira, eta Danborrada ospatu dute

Sabinak 100 urte bete ditu eta Caser Anakan ospakizun berezi bat egin dute. Urtarrilaren 25ean izan zen, eta bere familia hurbildu zen berarekin egoteko. Londresko familia ere etorri zen, egun berezi honetan berarekin egoteko. Sabinak 2004. urtetik darama Caser Anakan.

Inauteriak hasi dira prestatzen Caserren. Dekorazio berezia prestatzen ari dira, eta mozorro lehiaketa egingo dute.

Leka Enea Ikastetxearekin harremanetan jarri ziren, eta San Sebastian egunean Caser Anakara hurbildu ziren danborrada jotzeko. José Moreno Caser egoitzako kidea, Danbor Nagusi izan zen Lasarte-Orian aspaldi. Urtarrilaren 20an Leka Eneako umeen zuzendari izan zen, San Sebastianeko martxak jotzerakoan.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser
RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

Hasi da festa Olan

Txotx denboraldia ireki dute Meakako sagardotegian.

"Duela hamar-hamabost urte baino hobeto daude sagardotegiak"

Anjel Mari Peñagarikano, bertsolaria

"Ziur trikitia eta panderoa jotzen amaituko dugula"

Joseba Zabalo, pandero jotzailea

"Kontent onartu dugu aukera"

Patxi Aiorga, trikitilaria

"Hamaika upel daude. Gustuko baten bat topatuko du jendeak"

Iñaki Bengoetxea, sagardogilea

Batzuentzat, urtea ez da kanpai hotsekin eta mahatsen zaporearekin hasten. "Txotx!" deiarekin eta sagardoaren txinpartarekin baizik. Bi astez itxaron behar izan dute Irungo sagardozaleek 2016ari behin betiko ongi etorria emateko. Ola sagardotegian, urtarrilaren 17an ireki dute txotx denboraldia, ohiko bazkariarekin, eta ondorengo erromeriarekin. Patxi Aiorga eta Joseba Zabalo trikiti eta pandero jotzaileak izan dira lehenak aurtengo sagardoa dastatzen.

Jantokiaren atarian pilatuta itxaron du jendeak, adarraren soinu zahar bezain dotoreak sartzeko ordua iragarri duen arte. Txalapartaren kolpeek markatu dute, ondoren, upeletaraino hurbiltzeko erritmoa. San Martzial izenekoaren ondoan kokatu dira omenduak, eta Iñaki Bengoetxea sagardogilea. Joxe Mari Gelbenzu esataria izan da lehena hitz egiten. Mikrofonoa eskuan hartuta, ondoan zituen gonbidatuak aurkeztu ditu: "Patxi bere trikitiarekin, eta Joseba bere panderoarekin. Oso ezagunak dira Irunen eta Hondarribian, erromeria guztietan parte hartzen baitute". Euskal Herriko txapeldunorde izandakoak dira, eta finalista askotan. Hala ere, urtetan Ola sagardotegia girotzen ibili izanagatik estimatzen ditu, bereziki, Iñaki Bengoetxeak.

Dantzaria eta txistularia aurkeztu ditu, segidan, Joxe Mari Gelbenzuk. Enekoitz Urtxegik dantzatu du agurra, Arantxa Lasalderen txistu eta danbolin doinuekin. Txalo zaparradaren ondoren, upela ireki die Bengoetxeak gonbidatuei. Edalontzia neurrian bete, eta "hau da aurtengo sagardo berria!", esaldi tradizionala bota dute, edaria dastatu aurretik. Txaloak jo dituzte berriro entzuleek, eta kantuan hasi dira orduan Unai Agirre eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak, ondo prestatutako zeremoniari amaiera emateko. Omenduei bertso sorta eskaini diete. Bukatu dutenean, ordura arte zintzo itxaroten egondako jendea upelera hurbiltzen hasi da, sagardo tragoa emateko irrikaz.

Lehen lerrotik aldendu direnean, esker ona adierazi dute omenduek. "Poz handia hartu genuen Iñakik proposatu zigunean. Soinua jotzera oso gustura etorri izan gara beti. Beraz, txotx denboraldiari hasiera emateko aukera kontent onartu dugu", onartu du Patxi Aiorgak. Omenaldia jaso izanagatik egun ezberdina izango ote den galdetuta, irribarre bihurria egin du Joseba Zabalok: "Berezia izango da, baina ziur trikitia eta panderoa jotzen amaituko dugula". Egia esan, denbora gutxi behar izan dute gainerako musikarien multzora batzeko. "Egun handia izango da gaurkoa. Erromeria giroan luzatuko da", aurreratu du, pozik, Iñaki Bengoetxeak. Sagardoaren inguruko kezkarik ez du gaurkoan: "Hamaika upel daude, gustuko baten bat topatuko du jendeak".

Upelaren ondoko elkarrizketak eta kantuak

Otorduan zehar, mahaitik upeletara joanetorria maiz egin du jende gehienak. Elkarrizketa mamitsuak sortu dira bidean. Anjel Mari Peñagarikano bertsolaria, esaterako, sagardotegien bilakaerari buruz hausnartzen aritu da: "Garai batean baserri giroko jende euskalduna besterik ez zen ibiltzen sagardotegietan. Gero, aparra kolpean etorri zenean, kutsu hori galdu zuten. Orain berriro sustraietara bueltatzen ari dira, eta uste dut duela hamar-hamabost urte baino hobeto daudela sagardotegiak". Sagardogileek egin duten lanari ere erreparatu dio bertsolari beteranoak. Bertako sagardoekin lan egin izana eskertu dio Iñaki Bengoetxeari: "Sagarrak kanpotik ekartzen ibili dira batzuk, bolada batez, sagardoa bera ere eginda ekartzen zuten. Orain, berriz, bertako sagarrari merezi duen balioa eman diote berriro".

Hasierako urduritasuna atzean utzita, gustura ibili da Iñaki Bengoetxea, alde batetik bestera, upelak irekitzen eta Olan bildutakoekin hitz egiten. Gazta eta intxaurrak jan aurretik, eskaileretan behera eraman du jendea, sotoan ezkutatuta dagoen upel preziatura. Bertan idatzitako leloa abestu dute han behean, bertso eta trago artean: "Begi bustiak, aurpegiz ilun, baldin bazabiltza hola, triste dabiltzan gaixo guztien sendalekua da Ola".

LEA ETXEBARRIETA, errugbi jokalaria

"Oso inklusiboa da errugbia"

"Emakumeen errugbian denok laguntzen diogu elkarri, badakigulako aurkaririk gabe ez dugula partidarik edukiko"

"Taldeen arteko harreman ona mantentzeko baliagarria da hirugarren denbora"

Hendaian bizi da Lea Etxebarrieta, baina ia denbora gehiago ematen du Irunen eta Hernanin. Txingudi Rugby Taldean emakumezkoen sekzioa sortzeko lanean dabil, buru belarri. Bi denboraldi daramatzate proiektuarekin. Momentuz, animatu dituzten neskak ez dira taldea osatzeko aski. Beraz, lehiatu nahi dutenak Hernanirekin ari dira, bi elkarteek lortutako akordioari esker. Bitartean, eskolaz-eskola ari dira, neskak Plaiaundira erakarri nahian.

Nola harrapatu zintuen errugbiak?

Kanarietan ikasten nengoenean izan zen. Lagun batekin surfean ibiltzen nintzen orduan. Errugbian probatzera animatu nahi ninduen, baina nik ez nuen joan nahi, kirol gogorra eta agresiboa iruditzen zitzaidalako. Hala ere, probatzera animatu nintzen egun batean, beste neska batzuekin batera. Azkenean, beste horiek ez ziren gelditu. Ni bai, ordea.

Kanarietatik bueltan, Plaiaundin jarraitu zenuen.

Kanarietako azken urtean probatu nuen errugbia, eta bueltan, nesken talde baten bila hasi nintzen inguru honetan. Nire ahizpak bazuen lagun bat, ahizpa Irungo errugbi elkartean zuena Nik, orduan, ez nekien Irunen errugbi elkartea zegoenik ere. Baina Plaiaundira hurbildu nintzen, eta besoak zabalik hartu ninduten. Nesken taldea sortu nahian ari ziren orduan.

Oraingoz Hernani taldearekin lehiatzen ari zarete. Zergatik?

Momentuz ez dugu lortu soilik Irungoa den taldea eratzea, neska nahikorik ez dagoelako. Horregatik ari gara Hernanikoekin batera. Akordio ona dela uste dut. Hernaniri ondo datorkio, neska gehiago dituelako, aldaketak egin ahal izateko. Kontuan hartu hamabost neska behar direla zelaian, 80 minutuz. Guretzat ere ona da, asko ikasten ari garelako. Asteartetan Hernanin entrenatzen dugu, asteazkenetan Irunen, eta ostiraletan Hernanin. Irungo entrenamendua 19.00etan Plaiaundin izaten da, eta lasaiagoa da, hasiberrientzat egokia.

Hori bai, asmoa da etorkizunean Irunen taldea ateratzea. Berri ona izango da guretzat, eta gainerako elkarteentzat ere. Momentu honetan sei talde besterik ez gara Euskal Ligan. Horregatik, beste talde bat sortzea albiste ona da denentzat. Emakumeen errugbian denok laguntzen diogu elkarri , badakigulako aurkaririk gabe ez dugula partidarik edukiko.

Eskolaz-eskola ari zarete, neskak animatu nahian.

Bai, adin guztietako neskak bilatzen ari gara, errugbi eskola ere badugulako, igande goizetan. Zortzi urtetik gorako edonor etor daiteke Plaiaundira, errugbian aritzen ikastera. Orain eskolan dauden neskak etorkizuneko taldearen oinarri izango dira.

Zer esaten diezue neskei, errugbian has daitezen?

Batez ere, aurreiritziak baztertzen saiatzen gara. Batetik, esaten diegu errugbia ez dela dirudien bezain agresiboa. Bestetik, azpimarratzen diegu edonork izan dezakeela lekua errugbian. Niri horregatik gustatu zitzaidan hainbeste, oso inklusiboa delako. Adibidez, neska gizen asko ez dira kirolean hastera ausartzen. Errugbian, aldiz, badute haien lekua. Argalek eta azkarrek ere bai. Norbera bere gorputzarekin pozik egon daiteke errugbian, bere lana ondo bete dezakeela ikusten duelako. Iruñeko La Unica taldean, badago neska bat balleta eta errugbia egiten dituena. Hortxe duzu adibidea.

Zaila al da errugbiaren arauak barneratzea?

Nik bi urte daramatzat errugbian jokatzen, eta oraindik ez dakizkit arau guztiak. Hasieran, oinarrizko lau gauzak ikasita partidan sartu zaitezke. Gainerakoa, pixkanaka ikasten da. Gogoa behar da, besterik ez. Gehienetan, lehen entrenamenduan ikusten da errugbia gustatuko zaizun edo ez. Hasieran zaila izaten da, ez duzulako kirola ezagutzen. Baina azkar ikasten da.

Hirugarren denbora da errugbiaren ezaugarri famatuenetako bat. Zenbateko garrantzia du?

Hirugarren denbora derrigorrezkoa da. Kontaktuko kirola da errugbia, eta beharrezkoa da errespetua mantentzea. Taldekideekiko, aurkariekiko eta epaileekiko ere bai. Errugbian ondo barneratuta dago epailerik gabe ezin dela jokatu, eta bera dela jokoa garbia izan dadin bermatzeko ardura duena. Zelaian errespetua mantentzen da, eta jokoan izan diren gorabehera guztiak hirugarren denboran konpontzen dira, giro onean. Aurkari bati kolpe txar bat eman baldin badiozu, gero barkamena eskatzen diozu. Taldeen arteko harreman ona mantentzeko elementu baliagarria da.

Ezagutzen al duzu Iparraldeko errugbiaren mundua? Alde handia dago?

Sekulako aldea dago Irungo elkartearen eta Hendaiakoaren artean. Mailari dagokionez, baina baita aurrekontuari eta azpiegiturei dagokienez ere. Dena den, talde txiki batean egoteak badu bere xarma. Aurrera egitea zailagoa denez, harreman sendoagoa sortzen da taldekideen artean. Irunen elkarri laguntzen saiatzen gara beti, eta prest gaude ikastetxeetara joateko edo beste edozertan parte hartzeko. Bakoitzak ahal duen ekarpena egiten du.

Eliteko igerilariaren betebeharrak, eta haien ondorioak

Belaunaldi ezberdinetako igerilariek mantendu dute Bidasoa XXI Espainiako Kopako Ohorezko Mailan.

Estatuko igeriketa elkarte onenen artean dago Bidasoa XXI. Espainiako Kopan parte hartu du urtarrilaren 22, 23 eta 24ko asteburuan, Madrilen. Ohorezko Mailan aritu dira bai neskak, baita mutilak ere. Jaitsiera ekiditeko helburua zuten bi taldeek, eta gehiegi sufritu gabe erdietsi dute, laugarren izan baitira. Goi mailan aritzeko, aspaldi gainditu behar izan zituen Bidasoa XXIek eskualdeko mugak, baita Euskal Herrikoak ere. Espainiako eta Frantziako leku ezberdinetako igerilariak aritzen dira Bidasoa XXIekin. Hala ere, maila handia ematen duten irundarrak ere badira. Taldekideak dira Oskitz Aguilar eta Yerai Lebón irundarrak. Hiru urteko aldea dago bien artean. Igeriketa ere, modu ezberdinean bizi dute.

Behin baino gehiagotan igo da Oskitz Aguilar Espainiako Kopako podiumera. Bakarka, hirugarren izan da 100 metro libreetako proban (51.31). Baina marka hori hobetu du 4X100 erreleboetan. Lehen tokian egin du igeri, eta 50.87ko denbora behar izan du lana amaitzeko. Yerai Lebón, Markel Alberdi eta Florian Coiffard izan ditu taldekide. Erreleboa irabaztea lortu du laukote bidasoarrak, eta Terrassa bigarren sailkatuari ia lau segundo atera dizkio. Proba horixe du Aguilarrek begiz jota, aurtengo helburu gisa. 4X100 erreleboetan saiatuko da Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetarako plaza lortzen. "Badakit zaila dela, baina gogor saiatuko naiz", zin egin du 20 urteko irundarrak.

Igeriketan hasi zenean, halakorik ez zitzaion burutik pasa ere egiten. Behartuta joaten zen Artalekura, igeriketa ikastaroetara, amak esaten ziolako kirola egitea ezinbestekoa zela. Ikastaroetako maila guztiak gainditu ondoren, Bidasoa XXI klubean sartzeko probak egiteko aukera eman zioten. Hura ere gogoz kontra egin zuen. Lehiatzen hasita, Oskitz Aguilarrek dezente sufritu zuen: "Lehen urteak zailak izan ziren. Entrenatzaile gogor bat eduki nuen, eta uztekotan egon nintzen behin baino gehiagotan, gaizki pasatzen nuelako. Motelenetakoa izaten nintzen beti, eta inbidiaz begiratzen nituen beste haurrak". Pubertaroko gorputzaren aldaketekin batera hasi zen igerilekura gustura joaten: "Bilakaera handia izan nuen. Gainerakoak, aldiz, berdin gelditu ziren".

Emaitzak eta markak hobetuz joan zen hurrengo urteetan, eta entrenatzaileen arreta erakarri zuen. Markel Alberdi taldekide eibartarraren entrenatzailearen gomendioz, Joaquín Blume Madrilgo Errendimendu Handiko Zentrorako beka eskatu zuen. Bigarren urtea du jada Aguilarrek Blumen, eta kontent dago: "Ahalegin handia eskatzen du, baina hemen baldin bazaude, badakizu zertarako zauden. Estatuko onenak dituzu inguruan entrenatzen". Goizeko 6:30etan esnatzen da Aguilar, gosaldu ondoren eguneko lehen entrenamendua egiteko. Ikasgelara joaten da ondoren, eta 16:00etan, bigarren lan saioa egiten du. Txikitan iraupeneko probetan aritu izan bazen ere, orain 100 metro libreetan kontzentratuta dabil. "Oso proba teknikoa da. Dena neurtuta eduki behar da", azaldu du igerilariak. Ondo hasi du denboraldia, eta zaila bada ere, Rion amaitu nahi luke.

Beste ikuspegi bat

Aguilarren taldekide den Yerai Lebón irundarra ere Errendimendu Handiko Zentroetan ibili zen, txikitan emaitza bikainak lortu ondoren. "13-14 urterekin, egunean bi aldiz entrenatzen hasi nintzen. Orduan ez zitzaidan batere inporta. Irabazi nahi nuen, eta ahalik eta gehien hobetu", gogoratu du Lebónek. 18 urterekin, entrenamendu eta exijentzia maila handiagoa bilatu zuen Irundik kanpo. Toulousen egon zen lehenengo, Frantzian, Europa mailako elitearekin entrenatzen: "Bi urte gogor izan ziren. Entrenamendu, lehiaketa eta bidaia asko, pozak eta negarrak ere bai". Hala ere, ez zituen esperotako emaitzak lortu.

> "Ahalegin handia eskatzen du, baina hemen baldin bazaude, badakizu zertarako zauden"
>
> Oskitz Aguilar

Ondorioz, Bartzelonarako bidea hartu zuen Lebónek, bertako errendimendu handiko zentroan onartu baitzuten. "Beste bi urte eman nituen han, egunean 7-8 orduz entrenatzen. Arlo fisikoan inoiz baino hobeto ibili nintzen, baina psikologikoan huts egin nuen", aipatu du Lebónek. Lau urtez goi mailan lehiatzen eta entrenatzen ibili ondoren, bide hura alde batera utzita, etxera bueltatzea erabaki zuen Yerai Lebónek. Igeriketan jarraitzen du gaur egun, baina aurreko urteetan izandako presio itogarria gainetik kenduta. "Ezinbestekoa iruditzen zaidan entrenamendua egiten dut. Ez dut uretan minutu bat alferrik galtzen", argitu du irundarrak.

> "Ez dut uretan minutu bat alferrik galtzen"
>
> Yerai Lebón

Filosofia aldaketari esker, igeriketarekin eta bere egunerokoarekin gozatzen ari da Lebón. Bidasoa XXIeko haurrak entrenatzen egiten du lan, eta Soin Hezkuntzako ikasketetan pixkanaka aurrera egiten ari da. Gainera, duela hiru hilabete, Nada de Nada arropa marka sortu du, Rufino Regueira taldekide eta lagun minarekin batera. Igeriketan inspiratutako arropa saltzen dute: kamisetak, kirol jertseak, txanoak, motxilak, eta bainujantziak, noski. Igerilekutik hurbil jarraitzen du, beraz, Yerai Lebónek. Beste ikuskera batzuk ezagutzen ari da, ordea.

EDU ZABALA, idazlea:
Naturaren gaineko ustezko nagusitasuna antzezten dugu inauterietan”

Txingudi Bigarren Hezkuntzako Institutuko euskara irakaslea da Edu Zabala eibartarra. Idazlea ere bada, eta ipuina, eleberria, olerkia eta saiakera landu izan ditu. 2004an argitaratu zuen lehen liburua, *Inauterietan* izenburua zeramana. Euskal inauterietan girotutako ipuin bilduma zen. Gaiari heldu dio berriro oraingoan, beste molde batean, ordea. *Inauteria, gizakia naturaren kontra* liburua argitaratu du. Inauteriaren interpretazio pertsonala azaldu du Zabalak, “gogoeta literario” deitu dion generoan. Irunen egin du liburuaren lehen aurkezpena, urtarrilaren 27an, AEK euskaltegian. Otsailaren 4an ere Irunen izango da, Hizkuntza Eskolan, 17:45etan.

Zortzi urte eman dituzu libururik argitaratu gabe. Zer dela eta?

Gogo falta. Batzuetan ez zara puntu egokian egoten. Gauza bat da ipuinak idaztea, momentu batean bat, bestea beranduago. Eleberria edo saiakera idaztea beste kontu bat da. Zentratuago egotea eskatzen du, eta ez nuen tarte egokirik topatzen. Gogoa, indarra eta denbora behar dira idazteko.

Lehen liburua ere inauteriei buruz idatzi zenuen. Betidanik erakarri izan zaitu gaiak?

Mitologia, magiaren mundua eta inauteriena bereziki, beste begi batzuekin ikusten saiatu izan naiz beti. Horiek ulertzeko, uste dut beharrezkoa dela garai bateko gizakiaren egoeran kokatzea. Inauterien atzean irakurketa asko daude, eta nik nirea eman nahi nuen.

Oso ezberdinak dira, dena den, aipatutako bi liburuak. Ipuin bilduma zen lehenengoa, saiakera bigarrena.

Saiakera hitz potoloa dela iruditzen zait. Nik gogoeta literario izendatu dut. Konparaketa batzuk egin ditut, batzuk kasualitatez, beste batzuk nahita bilatuta. Inauterien moduko erritualetan, hainbat elementu errepikatzen dira munduan zehar. Liburu honetan, lau euskal inauteri hartu, eta munduko beste birekin alderatu ditut.

Zein da azaldu nahi duzun teoriaren funtsa?

Inauterien bidez, naturaren gaineko gure ustezko nagusitasuna antzezten dugula. Zaldikoa ferratzen baldin badugu, adibidez, natura menderatzen ari garela pentsatzen dugu. Beti saiatu izan gara naturaren gainetik jartzen, baina azkenean bueltan etorriko da bere nagusitasuna.

Dena den, badago inauteri bat, Altsasukoa, eskema hori jarraitzen ez duena. Inauteri horretan, gizakiak ez du natura menderatzen. Momotxorroak odolez zikinduta irteten dira, eta jendeari eraso egiten diote. Ez dute burua makurtzen.

Teoria hori azaltzeko, munduko beste adibideekin konparatu dituzu euskal inauteriak.

Bi adibide aztertu ditut bereziki. Bulgariako kukerrek sekulako antza dute gure joaldunekin. Joarea daramate, aurpegia estalita, ilea, soinua... Afrikako masai tribua ere aipatu dut. Badute dantza bat, oso ezaguna, non jauzi egiten duten etengabe. Hori, Zuberoako maskaradako dantzariekin konparatu dut. Santa Agedan makilekin lurra esnatzen dugun bezala, jauziekin ere berdina egiten dugulakoan nago.

Gizakiak eta naturak etengabeko borroka izan dutela diozu. Zein puntutan dago borroka hori? Nora garamatza?

Aurtengo negua ikustea besterik ez dago. Edo baliabideen zer nolako ustiaketa egiten dugun. Gainbeherari ekiteko mugan gaudela esango nuke. Katastrofista izatea gustatzen ez zaidan arren, uste dut natura erantzun batzuk, abisu batzuk ematen ari dela. Gizakiak pentsatzen du dena kontrolatzen duela, baina ez da horrela.

Zentzu berdina al dute inauteriek gaur egun?

Inauteriak ikuspegi askotatik uler daitezke. Izan daiteke parrandarako momentu bat, edo gizartea hankaz gora jartzekoa, Tolosan bezala. Pentsatzen dut bere garaian bazuela beste funtzio bat, eta erritual hori fosilizatu egin dela. Jendeak ez du asko pentsatzen nondik etor zitekeen-edo. Hor dauzkagu, errepikatzen ditugu, eta horrekin aski dugu. Ez dizkiogu buelta gehiegi ematen. Ondo pasa nahi dugu, eta horretarako baliatzen ditugu.

> “Gizakiak pentsatzen du dena kontrolatzen duela, baina ez da horrela”

Euskal inauteriak ez al du kutsu folklorikoa hartu?

Bere garaian, eliza katolikoak inauteri pagano horiek hartu eta bere kutsu erlijiosoa ematen ahalegindu zen, kontrolatu gabe zuen esparru hori menderatzeko. Olentzerorekin, adibidez, berdina egin zuen. Gaur egun, turismoa erakartzeko elementu gisa ere erabiltzen ditugu. Gogoratzen dut duela urte batzuk Lantzeko inauteria ikustera joan nintzela. Umez betetako autobus bat etorri zen, eta denak nahi zuten bezala mozorrotuta zeuden. Berdin zaigu non gauden, edo zergatik egiten duten hori. Errespetua galtzen diogu.

Hala ere, munduko beste lekuetako ohiturak erraz barneratzen ditugu. Zein iritzi duzu horri buruz?

Halloween, Papa Noel, adibide asko daude. Alde batetik uste dut nolabaiteko konplexua dugula gure kulturarekiko. Bestetik, komunikabideek etengabe bonbardatzen gaituzte. Horrela iristen zaizkigu beste zenbait ohitura, hemen ere bagenituenak, baina beste modu batera. Nik uste gure kultura munduko edozein bezain aberatsa dela. Beti kanpora begiratzen baldin badugu, badakigu zer etorriko zaigun: gurea desagertzea.

Liburua auto-editatzea erabaki duzu. Zergatik?

Bost liburu argitaratu ditut jada. Ibilbide horretan, konturatu naiz argitaletxeek badutela haien funtzioa, baina niretzat aberasgarriagoa dela nik neuk gidatzea prozesu guztia. Irabaziez ez dugu hitz egingo, badakigulako Euskal Herrian idaztea ez dagoela parametro horietan.

Baditu desabantailak. Banaketarako zailtasuna, esaterako.

Tirada txikiak egin behar dituzu, lagunen eta haien lagunen artean banatu etab. Sare sozialak erabilita ere mugi daiteke. Hala ere, iruditzen zait liburua nik neuk alde batetik bestera mugitzea eta hitzaldiak edo aurkezpenak bilatzea interesgarria dela. Eragina izateko modua da. Bestela beti argitaletxeak antolatzen dizunaren edo ez dizunaren mende gelditzen zara.

Harremanetarako edo liburua eskatzeko: eduzabala02@gmail.com

CBAra iritsiko da Abenida

Kultur guneak 2016an eskainiko dituen jardueretan presente egongo da nazioarteko zubiaren mendeurrena

Ohiko zerbitzuez eta jarduerez gainera, kultur egitarau zabala eskainiko du Carlos Blanco Aguinaga Kultur Guneak 2016an. Abenida zubia omenduko du aurten, ehun urte bete dituelako. Hori dela eta, zubiari erreferentzia egingo diote egitarauko jarduera gehienek. Beste protagonista Frantses Institutua izango da, urtearen hasieran, behintzat. Haren eskutik helduko dira lehen jarduera bereziak.

Urte bakoitzean, jarduerak gai baten inguruan ardaztea erabaki dute. Hortik abiatuta, tailerren edo ipuin kontalarien moduko ohiko hitzorduak, eta ez ohiko ekimenak antolatuko dituzte. “CBA dinamizatzeko eta kultur agenda indartzeko estrategia diseinatzen ari gara”, argitu du Juncal Eizagirre Kultura arloko ordezkariak.

2016an, Abenida zubiaren mendeurrena izango da ardatza. Lau multzotan zatitu dute urteko egitaraua, banaketa kronologiko bati jarraituta. Urtaroak, Abenida zubiaren historiarekin lotuko dituzte. Negua zubiaren lehen 25 urteekin, udaberria hurrengo 25ekin, eta berdin udarekin eta udazkenarekin ere. Planteamendua modu grafikoan irudikatu dutela baieztatu du Eizaguirrek: “Soka batean, data bakoitza islatzen duen korapilo batzuen irudia aukeratu dugu”.

> “Aurten kolaborazio estuagoa eta iraunkorragoa izango dugu”
>
> **Jean André Viala, Frantses Institutuko ordezkaria**

Hurrenkera kronologikoari jarraiki, Abenida zubia eraiki zuten garaira joko du CBAko egitarauak hilabete honetan. Horrela, otsailean zehar, Lehen Mundu Gerrari buruzko 14-18 erakusketa interaktiboa ikusi ahal izango da kultur gunean. Frantses Institutuak prestatu du, udalarekin adostutako lankidetzaren bidez. 2014an Albert Camus idazleari buruzko erakusketa antolatu zuen Frantses Institutuak. Baina oraingoan, harremana sendotu dutela onartu du Jean André Viala Frantses Institutuko ordezkariak: “Aurten kolaborazio estuagoa eta iraunkorragoa izango dugu”.

> “CBA dinamizatzeko eta kultur agenda indartzeko estrategia diseinatzen ari gara”
>
> **Juncal Eizaguirre, Kultura arloko ordezkaria**

Lehen Mundu Gerraren nazioarteko dimentsioa irudikatzen du 14-18 erakusketak, panel interaktiboen bidez. QR kodeak dituzte panelek, eta smartphone edo tablet gailuen bidez horiek aktibatuta, multimedia artxibo osagarriak eskuratu ahal izango ditu bisitariak. Garai historiko horretan sakontzeko, Frantziar zinema zikloa ere prestatu du Frantses Institutuak. Ostegunero emango dituzte filmak, frantsesez, gaztelaniazko azpitituluekin. Bertrand Tavernier zuzendariaren Capitaine Conan (1996) emango dute otsailaren 4an, 18:30etan. Aurrerantzean, ostegunero emango dituzte filmak, baina 19:00etan hasiko dira hurrengoetan.

Kontzertu akustikoak egongo dira hilean behin

Zinemaz gainera, musika emanaldiak ere eskainiko ditu CBA kultur guneak. Hilabete bakoitzeko azken ostiralean, tokiko edo hurbileko taldeen edo bakarlarien kontzertu akustikoak egongo dira. AcusticCBAs izena eman diote ekimenari. “Formatu txikiko proposamenak eskaini nahi ditugu, publikoarekiko hurbil daudenak, atseginak eta entretenigarriak”, azaldu du Juncal Eizaguirrek. Lehen kontzertua Iker Piris tolosarrak eskaini du, urtarrilaren 29an.

Abenida, zubi historikoa

1902 urtean, Hendaiako tren geltokitik hurbil zubi bat eraikitzeko asmoaren berri eman zion Cipriano Larrañaga Irungo alkateak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Txalupa zerbitzua besterik ez zegoen, garai hartan. Ignacio Ugarte ingeniariak burutu zuen proiektua. Baranda bereizgarria, Pasaiako Molinao enpresak egin zuen.

1916an amaitu zuten zubia, Lehen Mundu Gerrak eztanda egin zuen urtean. Zubiaren erabilera mugatu zuen gatazkak, 1918ra arte. 1936an, milaka irundar pasa ziren Hendaiako aldera, gerra zibiletik ihesi. 1940an, Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan, Lluis Companys Errepublika garaian Kataluniako presidente izandakoa, frankisten esku utzi zuen Gestapok, Abenida zubian. Beste hainbat gertakari historikoren lekuko ere izan da Abenida zubia, ehun urteko ibilbidean zehar. 1966an Santiago zubia eraiki zuten ondoan, trafikoa handik bideratzeko.

Otsailaren 8an zabalduko dute Amatxi denda eraberritua

Gosariak eskainiko ditu Luis Marianoko establezimenduak hemendik aurrera

Luis Marianon dagoen Amatxi dendak badu ateak berriro irekitzeko data. Otsailaren 8tik aurrera egongo da zabalik. Jabe aldaketarekin batera, berritasun esanguratsuak heldu dira Amatxira. Orain arte, tea, kafea, infusioak, azukrea, gatza edo txokolatea zeuden salgai, besteak beste. Baita teontziak, katiluak edo iragazkiak ere. Hemendik aurrera, produktu horiek eskuratzeko aukera emateaz gainera, kafetegi gisa ere funtzionatuko du Amatxik. Gosariak emango dituzte bertan, goizeko 9:00etatik aurrera.

Artisau produktu esklusiboekin lan egiten du Amatxik. Txokolatea, esaterako, Maitiana bonboi etxe ezagunekoa da. Donostian dago gaur egun, baina Irunen ere izan zuen denda, Colon pasealekuko 40.ean. Bomboneria Juncal ezagunaren oinordekoa izan zen. Orain, Amatxi da Irunen Maitianako txokolatea eskaintzen duen denda bakarra. Luis Mariano kaleko 19.ean dago.

EUSKARAZ, iRUNEN BARRENA

Jose Luis El Busto Etxegarai 12 urteko haurrak kontatua. Irunen sortua da, baina zortzi urtez bizi izan da Urdazubin. Ama lesakarra du; aitak ez daki euskaraz.

(El Bidasoa, 1959-III-7)

Elizan falta dirua

Bidasoaldeko erri batian, besta bigarren egunian apez jaunak sumatu zuen elizan falta zula dirua. Etzekin zeñek ebatsia izaten al zen. Ari zen bateri galde eta bertzeri galde, eta inork ere etzuen ikusi atxematen.

Bañon beste irugarren egunian alletu zen goxua, pillota eta bertze olako puska batzuek saltzen zittuen emazteki bat, eta segidan yuan-tziren, eun peseta eskutan, alkate yaunaren semia, mediko yaunaren semia eta ainzindari edo sarjentuaren semia, mediko yaunaren semia eta aintzindari edo sarjentuaren semia.

Segidan konturatu ziren orik ebatsiak zirela elizako dirua. Apez yaunak erran zion itzultzeko diru ori elizara.

Beren gurasoak yo zituzten eta errantzioten lana lan egin eta irauzita itzultzeko diru ori elizara. Motikuak yuan ziren emazteki bat bakarra bizi zen etxe batera eta bettikikan ebatsi zittuzten iru dozena ollun arroltziak eta balde batian barrenian paratu zittuzten arbol batetikan zintzillik, txori pikarazak umiak egiteko, zertaz erriko etxeak ematen zuen diru aunitz, pikarazak atxematen zituenari.

Eta ola pensatu zuten elizari dirua ematia. Emaztekiya ura kejatu zen alkate yaunari ebatsi ziaztela arroltziak. Alkate yauna aski koletu eta sartu zittuzten iru motikoak garzelara. Bera samia sartu zun lenbizikua. Eta emen finitu zen.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Hogeita hamasei tipo

Malmö estudioaren eskutik dator Gazteartean Expo ekimeneko hirugarren erakusketa

Urtarrilaren 22an hasi da Gazteartean Expo programako hirugarren erakusketa, Martindozenea Gaztelekuan. Elizondoko Malmö estudioko kideak ari dira, oraingoan, haien lana aurkezten. *36 days of type* proiekturako diseinatutako letrek eta zenbakiek osatzen dute erakusketa. "Diseinua erreferentea da gazteentzat, haien egunerokoan oso barneratuta baitago", adierazi du Garikoitz Murua GKO Galleryko kide eta Gazteartean Expo ekimeneko antolatzaileak. Irunen Kunsthal diseinu eskola dagoela kontuan hartuta, ikasleentzat estudioko jendea ezagutzeko aukera ona izan daitekeela azpimarratu du.

"Ongi dago zure gremiokoen kritikak eta iruzkinak jasotzea"

Juan Angel Perotxena, diseinatzailea eta ilustratzailea

"Ate aunitz ireki zizkigun proiektuak"

Maria Gaztelupe, komunikazio arduraduna

Gazteartean Expo programa 2015eko azaroan jarri zuen martxan Irungo Udaleko Gazteria arloak. Elkarri lotuta dauden bi helburu ditu ekimenak. Alde batetik, sortzaile gazteei erakusketak egiteko aukera eskaintzea. Bestetik, hiriko gazteak artearen mundura erakartzea. "Gazteen artean erakustetara hurbiltzeko benetako interesa sortu nahi dugu. Haien egunerokoaren parte bilakatu nahi dugu artea, sormen lana eta lan artistikoa balora ditzaten", azaldu du Josune Gomez Gazteria arloko ordezkariak. Hori dela eta, Martindozenea Gaztelekua hautatu dute erakusketak egiteko. Iñaki Gonzalez Fortun diseinatzaile grafiko eta arte zuzendariak bere lanetan dagoen fusioaren lagin batzuk eskaini zituen lehen erakusketan. Bigarrenean, Oier Gil ikus-entzunezkoetan aritzen den artistak *Akwaba Ghana* izeneko argazki bilduma aurkeztu zuen.

Hirugarren erakusketa urtarrilaren 22an hasi da, eta otsailaren 19ra arte egongo da Martindozenea Gaztelekuan, asteartetik larunbatera, arratsaldez. Artista nafarrak gonbidatu dituzte oraingoan, baztandarrak. Elizondon dagoen Malmö estudioko kideek haien 36 days of type proiektuaren emaitza aurkeztu dute. Interneten sortutako ekimena da 36 days of type, Nina Sans eta Rafa Goikoetxea artisten bultzadaz. Tipografia maratoia da. 36 egunez, egunean tipo bat diseinatu behar izaten dute parte hartzaileek (Atik Zra eta 0tik 9ra). Ondoren Instagram sare sozialean elkarbanatzen dute tipoa, eta egun bakoitzeko onenak proiektuaren kontu ofizialean nabarmentzen dituzte antolatzaileek. Gaztelekuko erakusketan, haiek diseinatutako 36 tipoak erakutsiko dituzte Malmöko kideek. "Proiektua bukatu genuelarik, konturatu ginen estudioaren izaera arras ongi erakusten zuela. Ilustrazioaren barruan estilo ezberdinak jorratzeko dugun gaitasuna, adibidez. Horregatik, 36 tipoak batera erakusteko asmoz genbiltzan, baina ez genuen momentu edo leku egokia topatzen", argitu du Maria Gaztelupe Malmö estudioko komunikazio arduradunak.

Ekimen boluntarioa, baina aberasgarria

Doako proiektu boluntarioa da 36 days of type, eta ez dago saririk. Hala ere, hilabete pasatxoko epean egunean hiruzpalau ordu lan horretan emateak merezi duela uste du Perotxenak: "Lan komertzialak ongi daude, fakturak ordaintzen dituzulako horiekin. Baina noizean behin horrelako proiektuetan parte hartzea gustatzen zaigu. Honek, adibidez, sekulako askatasuna ematen du, estilo pertsonala lantzeko eta esperimentatzeko". Beste alde interesgarria da parte hartzen duten artisten artean sortzen den elkarreragina. "Ongi dago zure gremiokoen kritikak eta iruzkinak jasotzea, eta besteen lanak ikustea ere oso aberasgarria da", baieztatu du Juan Angel Perotxenak. 36 days of type-en parte hartzeak haien lana zabaltzeko aukera eman zien. "Poster bat egin genuen tipo horiekin, estudioetara bidali genuen, eta ate aunitz ireki zizkigun. Esaterako, The Balde aldizkariaren azalean agertu zen", azpimarratu du Maria Gaztelupe Malmöko komunikazio arduradunak. Posterraren edizio mugatu bat ere banatu dute Martindozenean, 50 alekoa, erakusketara hurbildu diren lehen bisitarien artean.

Haranetik mundura

Duela bost urte sortu zen Malmö estudioa Elinzondon (Nafarroa). Juan Angel Perotxena diseinatzailea eta ilustratzailea da, eta Maria Gaztelupe komunikazioaren arloaz arduratzen da. Garikoitz Murua GKO Galleryko kide eta Gazteartean Expoko antolatzaileak haien lana goraipatu du: "Lan serioa egiten dute, oso interesgarria. Badu Euskal Herriko kultura tradizionalaren ukitua, baina modu berezian lantzen dituzte elementuak". Nahasketarako duten joera onartu du Perotxenak. Baztan leku turistikoa izanik, ohiko souvenir produktuei buelta eman eta pieza bakar eta esklusiboak sortu nahi izan dituzte. *Puxkek* marka sortu dute horretarako. "Baztanen lauburuak eta euskal tipografia ikus daitezke non nahi. Guk euskal kultura, gure nortasuna, diseinuarekin nahasten dugu. Hirietan ez dago halako konplexurik, baina Baztanen sobera tradizionalak gara", argitu du Perotxenak.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXEETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID: 655 70 98 93

Ekintzak

DISKOFESTA!!!

Zer? Gazteentzako diskofesta antolatu dute aurten ere.

Noiz? Otsailak 6.

Non? Zabaltza Plazan.

Ordutegia? 21:00etatik 00:00era arte.

Prezioa? Doan.

Informazio gehiago?
http://www.irun.org/igazte/

GAZTEARTEAN EXPO: MÄLMO

Zer? Erakusketa honek '36 days of Type' proiekturako egindako lana erakusten du; proiektu horretan diseinatzaileek tipografia bat sortu zuten egunero, 36 egunetan zehar (Atik Zra letra guztiak, eta 0tik 9ra bitarteko zenbakiak).

Non: Martindozenea Gaztelekuan.

Noiz? Asteartetik larunbatera. 17:00etatik 21:etara.

Informazio guztia? 13. orrialdean.

Tailerrak

DYA SOROSPEN ETA LEHEN LAGUNTZARAKO IKASTAROA IRUNEN

Datak? Otsailaren 22tik martxoaren 11ra.

Ordutegia? 18:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera.

Non? Dunboa Ikastetxean.

Prezioa? 110 euro.

Harremanetan jartzeko?
943.46.46.22
www.DYAgipuzkoa.com
info@DYAgipuzkoa.com

DRONEEN PILOTUA IZAN NAHI DUZU???

Zer? Bidasoa Institutuak droneen pilotu izateko prestakuntza hasi du.

Aireontzi horiek nekazaritzan, industrian, eraikuntzan, jagoletzan, argazkigintzan, bideoan eta abarretan erabiltzen dira.

Informazio guztia:
http://www.bidasoa.hez-kuntza.net/

Deialdiak

ARGAZKI DIGITALAREN LEHIAKETA

Zer? Meaka auzoko V. Argazki lehiaketa. 3 argazki bidal ditzake parte hartzaile bakoitzak.

Gaia: Irungo "Meaka Auzoa".

Epea? Martxoak 6ra arte.

Nola bidali argazkiak?
Posta elektronikoz: avvmeaka@gmail.com

- Aurrez aurre: Irungo CBA Kultur Gunean
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

HAURRAK EGINA HAURRENTZAKO!!!

Zer? Marrazketa eta Pinturaren Udal Akademiako umeek egindako lana, Dominikar Errepublikako Santo Domingoko lagunentzat. "Nire auzoko haurrentzako eskolako umeentzat".

Kolabora ezazu ekimen honekin eta erosi "Haurrak egina haurrentzako" kartela.

Dohaintza: 5 euro.

Kartela lortzeko lekuak:
Irungo Udaleko Kultura Saila (Urdanibia plazako Ospitale Zaharra), CBA Kultur Gunea, Amaia KZ, Turismo Bulegoa (Luis Mariano) eta Irungo Marrazketa eta Pinturaren Udal Akademia (Reina Fabiola, 28 - Anaka).

ZUZEUKO GAZTEA SARIA: HILEAN 150€ ARTIKULU ONENARI URTARRILETIK AURRERA

Zer? Urtarrilaren 1ean hasita, ZUZEU orainkariak Azkue Fundazioaren laguntzaz 150 euroko saria emango dio hilabete bakoitzean artikulu onena argitaratzen duen gazteari, alegia, 30 urtez azpiko egileari.

Lehiaketa honen xedea, euskaraz idatzi nahi duten gazteak kitzikatzea da, haien lanak kontsolidatutako hedabide batean argitaratzeaz gain, dirutxo bat irabazteko aukera emanez hilabetero-hilabetero. Gainera, ZUZEUko Erredakzioaren laguntza izango dute euren lanak behar bezala idatzi eta argitaratzeko, etengabeko aholkularitza baten bidez.

Informazio gehiago:
http://zuzeu.eus/euskal-herria/zuzeuko-gaztea-saria-2016/%22

- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

CENTRO KINEESIS
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

INAUTERIAK 2016

Otsailak 4

Zer? Zanpantzarren konpartsa. Musika Kontserbatorioko ikasleek, Auntxa trikitixa taldeak, gaiteroek, Txingudi Dultzaineroek eta Bidasoako Erraldoiek parte hartuko dute.

Ordua? 19:00etan.

Ibilbidea? Alberto Angera plazan hasiko dira. Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre, Geltoki, Colon kaleetatik pasako dira. Zabaltza plazara 19:30tan iritsiko dira. Han Zanpantzar jarri, eta erraldoien dantza egingo dute.

Otsailak 5

Zer? Konpartsen aurkezpena.

Ordua? 20:00etan.

Non? Amaia K.Zn.

Otsailak 6

09:00: Puska Biltzea. Eraiki Dantza Taldea Bidasoa eta Behobiako baserrietatik ibiliko da.

09:30: Puska Biltzea. Ibarla Meaka Dantza Taldea Meakako baserrietatik ibiliko da.

10:00: Puska Biltzea. Txorimaloak Soinu Taldea Anakako baserrietatik ibiliko da.

12:00: EUSKAL-HERRI INAUTERIA Pio XII plazatik abiatuko dira. Serapio Mujikatik, Juan Aranatik, Luis Marianotik, Zabaltza pazatik, Foru kaletik, Kale Nagusitik, San Juan plazatik, Eliza Kaletik eta Junkal plazatxotik pasako dira. Erromes plazan bukatuko dute.

17:00: Haurrentzako desfilea. Letxunborro kalean hasiko dira. Hondarribia kalea, Kolon ibilbidea zeharkatuko dute eta Nafarroa hiribidean bukatuko dute.

Otsailak 7

09:00etan: Egoipar Meaka Dantza Taldea Meakako baserrietatik ibiliko da.

09:00etan: Meakako Adiskideak Dantza Taldea Meakako baserrietatik ibiliko da.

09:00etan: Puska Biltzea. Kemen Dantza Taldea Olaberria auzoko baserrietatik ibiliko da.

17:00: Haurrentzako desfilea. Letxunborro kalean hasiko dira. Hondarribia kalea, Kolon ibilbidea zeharkatuko dute eta Nafarro hiribidean bukatuko dute.

Otsailak 9

19:00: Dantzagarriak Irungo Musika Bandaren eskutik. Zabaltza plazan bilduko dira eta San Juan plazara abiatuko dira.

19:30: Sardina lurperatzeko eta Zanpantzar erretzeko ekitaldia.

Otsailak 13

Zer? CABARET CHIHUAHUA musikal kritikoa da, ironikoa, euskomexikarra eta zonbi samarra, krisi garaietarako. Munduaz bestaldetik datorren exorzismoa, mundu honetako kontu txarrak kanporatzeko.

Non? Amaia K.Zn.

Ordua? 20:00etan.

Prezioa? 14 euro. 12 euro Gazte Txartelarekin.

https://ticket.kutxabank.es/janto/main.php?Nivel=Evento&idEvento=TA13FEB16&idRecinto=AMAIR

Otsailak 13

Zer? Jabier Muguruzaren kontzertua. Hemen dugu Jabier Muguruza euskal kantautorearen disko berria, 14.a dagoeneko, “Tonetti anaiak” izenburukoa. Bertan, aspaldiko partez, egileak idatzitako testuak nagusitzen dira, kolaboratzaileek idatzitakoen aldean. Badaude, hala ere, Iñaki Irazuk, Lourdes Oñederrak, Harkaitz Canok eta Gerardo Markuletak sinatutakoak.

Non? Oiasso Museoan.

Ordua? 20:00etan.

Prezioa? 6 euro.

http://www.irun.org/oiasso/home.aspx?tabid=1

Amona Kattalin Txoko

Amona Kattalin Txoko jatetxea Meaka auzoan dago. Errazta-suna aparkatzeko, zerbitzu arretatsua, kalitatea, eta prezio ona.

Tel: 843 98 57 06
Meaka Auzoa, 9, Irun.